


Herritarren Partaidetza

PRESTAKUNTZA IKASTAROAK



Herritarren partaidetza
Partaidetzako prestakuntza ikastaroak
2021eko Urtarrila-Martxo

Informazioa eta inskripzioak

T: 948 420 266

Email: formacion.participacion@pamplona.es

Webgunea: www.participa.pamplona.es

AURKIBIDEA

1	ZENTRO. ELKARLANEKO GUNEA	3
2	PARTAIDETZARAKO PRESTAKUNTZA	4
3	INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES	5
4	ARGIBIDEAK ETA IZEN-EMATEA	
4.1.	Gizarte-trebetasunak	7
4.2.	Partaidetza-tresnak	10
4.3.	Gizarteratzea	15
4.4.	Elkarteen kudeaketa	18
4.5.	Trebetasun teknologikoak	21
5	IKASTARO GUZTIEN EGUTEGIA	22

Zentro Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorraren barruan dago. Guneak xede du udalerriko kolektiboak eta eragile sozialei partaidetza arloan laguntzea eta gaitzea, eta horretarako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Informazio eta Baliabide Zerbitzua. Liburutegia eta Dokumentazio Zentroa.
- Aholkularitza tekniko eta legaleko Zerbitzua. Partaidetzarako prestakuntza
- Herritarren Parte-hartzea Dinamizatzeko Zerbitzua

Nori zuzendua...

Gizarte zibilari (antolatuari zein antolatu gabeari), herritarren elkarte, kolektibo eta entitateei, eta Administrazio Publikoko langileei (politikariei eta teknikariei) eta arlo sozio-komunitarioko langileei (gizarte-hezkuntza, -kultura, -osasun, -ingurumen eta abarrekoei).

COVID-19AK EZ GAITZALA GELDIARAZI!

Osasun-larrialdi egoera dela-eta, prestakuntza-saioak egokitu egin behar izan ditugu; prestakuntza guztiak, hasiera batean, online izanen dira. Osasun-egoerak aukera ematen badu, prestakuntzak aurrez aurre egiteko beharrezko neurriak hartuko dira.

Helburua...

- Herritarren Partaidetzako zerbitzuak zentralizatzea eta herritarren zein profesionalen eskura jartzea zerbitzu horiek.
- Gizarte-loturak eta herritarren jarrera aktiboa sustatzea.
- Lankidetzak-dinamikak indartzea Udalaren, gizarte-entitateen eta tokiko garapenaren alde egiten duten herritarren artean.
- Gaitze-prozesuak garatzea, hiriko eragile sozialei zuzenduak, partaidetzan eta herritartasun aktiboko arloetan.
- Guneak sortzea herritar aktiboak eta gizarte-entitateak elkartu daitezten eta gogoeta egin dezaten.

Kokapena eta harremanetarako datuak:

Tfno 948 42 02 66
Email formacion.participacion@pamplona.es
Webgunea <http://participa.pamplona.es/>
<https://erabaki.pamplona.es>

- Youtube: [participa.pamplona](https://www.youtube.com/participa.pamplona)
- Facebook: [participa.pamplona](https://www.facebook.com/participa.pamplona)
- Twitter: [@participa_pna](https://twitter.com/participa_pna)
- Flickr: [participa.pamplona](https://www.flickr.com/photos/participa.pamplona)

PARTAIDETZARAKO PRESTAKUNTZA



Prestakuntzako zerbitzu eta programak

Prestakuntza- eta sustapen-zerbitzu ezberdinak eskaintzen dira.

- Etengabeko prestakuntza (hiruhilekoa).
- Prestakuntza nahieran, gizarte-erakundeentzat.
- Prestakuntza elkarteekin (Alorraren partaidetza-prestakuntzarako dirulaguntzen bidez).
- Partaidetza sustatzeko hainbat jarduketa mota antolatzea, hala nola jardunaldiak, hitzaldiak, topaketa-foroak, argitalpen propioak...



Lankidetzak moduak -prestatzaileen eta ikastaro-proposamenen poltsa

Herritarren Partaidetzak 16 ikastaro eskaintzen ditu 2021eko urtariletik martxora, gaztelaniaz, hala herritarrei nola kolektibo zein elkartei zuzenduak.

Hona aurten zedarritu diren ildo berriak:

- [Gizarte-trebetasunak](#)
- [Partaidetza-tresnak](#)
- [Gizarteratzea](#)
- [Elkarleen kudeaketa](#)
- [Trebetasun teknologikoak](#)

Herritarren Partaidetzak prestatzaileen eta ikastaro-proposamenen poltsa bat sortu du, prestatzaile gisa aritu eta prestakuntza-jarduerak eman nahi dituzten profesionalak edo enpresek izena eman dezaten. Halaber, prestatzaileen elkarteekiko hartu-emanak erraztuko dira, betiere beharrak kontuan hartuta.

Prestatzaileen poltsan sartzeko, proposamen bat bidali beharko da, honako hauez osatua:

- Aurkezpen-gutuna
- Prestatzailearen fitxa
- Prestakuntza-proposamenaren fitxa
- Curriculum vitae



Hona bidali

formacion.participacion@pamplona.es



Argibideak eta izen-emateak

[Matrikula doan](#)

[Argibide gehiago](#)
[Zentro, elkarlaneko gunea](#)
[Hezkuntza, Herritarren](#)
[Partaidetza eta Gazteriako](#)
[Alorra](#)

- **Ikastaroak, oro har, 18 urtetik gorakoei zuzenduak dira**, salbu eta ikastaro jakin batzuk, zeinen kasuan prestakuntza-jardueraren informazioan adieraziko baita nori zuzendua den.
- Behin-behineko izen-ematea egiteko epeak berariaz zehazten dira ikastaro bakoitzean. **Oro har, urtarrilan zabalduko da behin-behineko izen-ematea egiteko epea, eta ikastaroa hasi baino bi aste lehenago itxiko.**
- **Ikastaro batzuk gaztelaniaz eskaintzen dira, beste batzuk, euskaraz.**
- Behin-behineko izen-ematea egiteko, online formulario bat bete beharko da ikastaro bakoitzeko, eta hura participa.pamplona.es webgunean sartuta egin ahal izanen da.
- Behin-behineko izen-emateen epea amaituta, eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie onartuak izan diren edo ez.
- **Pertsona onartuek berretsi egin beharko dute parte-hartzea, behin betiko izena emanda.**
- Parte-hartzaileak onartuko dira, ikastaro bakoitzeko ikasleen gehieneko kopurua osatu arte.
- **Izena eman baduzu baina ezin bazara ikastarora etorri**, hura hasi aurretik jakinarazi, mesedez. Jardueran baja ematen baduzu, beste pertsona batek eman dezake izena zuk libre utzi duzun lekurako.
- Ikastaroren baterako eskaintako lekuak baino eskaera gehiago badira, ikastaro bakoitzaren berariazko irizpideen arabera hautatuko dira parte-hartzaileak, betiere Iruñean erroldatuta daudenei lehentasuna emanez.
- Aurrera begira, kontuan hartuko da ikastaroaren % 85era agertu ez diren pertsonen kasua, eta ikastaroren batean lan pertsonala egiten bada, hura entregatu ez izana.
- Halaber, **bertaratze-agiria emanen zaie ikastaroaren ehuneko horretara agertu diren ikasleei.**
- Gutxieneko izen-emate kopurura iristen ez diren ikastaroak bertan behera utz daitezke.

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

1 GIZARTE-TREBETASUNAK

- | | | |
|------|--|---|
| 1.1. | Emozioen iparrorratza | 7 |
| 1.2. | Harremanak eraikitzea adimen emozionaletik ‘Gatazkari eta komunikazioari buruzko lana’ | 8 |
| 1.3. | Taldean gidaritza eta lidergoa pandemiaren testuinguruan | 9 |

2 PARTAIDETZA-TRESNAK

- | | | |
|------|--|----|
| 2.1. | Herritartasun Globala eta Parte-hartzea: GGKEen sare-lana | 10 |
| 2.2. | Komunitate-bitartekaritza | 11 |
| 2.3. | Indarrean den Partaidetzako Erregelamenduari buruzko oinarritzko ezagutzak | 12 |
| 2.4. | Nola egin aurre gorrotoaren diskurtsoari eta desinformazioari? Ziberaktibismoaren estrategiak eta berrikuntza narratiboa | 13 |
| 2.5. | 2030eko agenda eta garapen jasangarriko helburuak | 14 |

3 GIZARTERATZEA

- | | | |
|------|--|----|
| 3.1. | Migrazioa eta gizartearen parte-hartzea (gaztelaniaz) | 15 |
| 3.2. | Migrazioa eta gizartearen parte-hartzea (euskaraz) | 15 |
| 3.3. | Kulturen arteko komunikazioa aurrez aurre | 16 |
| 3.4. | Adimen-urritasuna duten pertsonen parte-hartzea Ni ere | 17 |

4 ELKARTEEN KUDEAKETA

- | | | |
|------|---|----|
| 4.1. | Elkarteen finantzaketa eta kontabilitatea | 18 |
| 4.2. | Zerk egiten zaitu paregabe: Gizarte-berrikuntza eta funtsak lortzeko estrategiak, finantzaketa publikoaren alternatiba gisa | 19 |
| 4.3. | Herritarren partaidetza eta gizarte-eraldaketa boluntariotzaren bidez | 20 |

5 TREBETASUN TEKNOLOGIKOAK

- | | | |
|------|--------------------------------------|----|
| 5.1. | Sare sozialen lantegia elkarteentzat | 21 |
|------|--------------------------------------|----|



Datak

Urtarrilak 22 (ostirala),
23 (larunbata), 29 (ostirala)
eta 30 (larunbata)

Ordutegia

- Ostiraletan, 16:30etik
19:30era
- Larunbatetan, 10:00etatik
13:00etara

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka

Behin-behineko izen-ematea

Urtarrilaren 14ra arte

EMOZIOEN IPARRORRATZA

Emozioak, koloretsuak eta ekaiztsuak... Zertarako balio dute?

Indarkeriarik Gabeko Komunikazioak gure beharretara seinalatzen duten ikur gisa ulertzen ditu emozioak. Horrela, haserre, triste edo gogotsu sentitzen naizenean, sentitzen dudana barne-barneko behar batekin, une horretan niretzat oso garrantzitsua den oinarrizko balio batekin, lotzen nauten adierazleak dira.

Emoziorik gabe, ezinen genuke geure burua zaindu, ezta besteak ulertu ere, bi faktore horiek ezinbestekoak baitira edozein harreman edo komunitatetan.

Edukiak

- Gure emozioak ezagutzea eta horiek guregan eta gure arteko harremanetan duten eragina eta funtzioa ulertzea.
- Amorrua, beldurra, tristura, zoriontasuna eta errua gure beharretarako bide gisa.
- Erreaktibitatea jaistea eta lehen laguntza autokudeatzea.
- Gure amorrua ulertzea eta beste pertsona baten amorrua entzutea.

Iraupena: 12 ordu

Nork emana: Franziska Rautenberg

Psikologoa (tituluduna Alemaniako FU-Berlingo Unibertsitatean), terapeuta sistemikoa familia eta bikoteetan (Euskadi eta Nafarroako Familia Terapiako Eskola). Indarkeriarik gabeko Komunikazioko prestatzaile egiaztatua CNVC-n. Bideratzailea Embodied Peacemaking-ean. Psikologia Kritikoaren eta subjektuaren zientzien adiskidea.



Datak

2021eko martxoak 3, 10, 17
eta 24

Ordutegia

17:00–20:00

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka.

Behin-behineko izen-ematea

Otsailaren 23ra arte

HARREMANAK ERAKITZEA ADIMEN EMOZIONALETIK 'GATAZKARI ETA KOMUNIKAZIOARI BURUZKO LANA'

Prestakuntza horren helburuak dira emozioaren jatorri fisiologikoa eta kognitiboa ezagutzea, gorputzaren bidez gure emozioak ezagutzen ikastea, autoerregulazio emozionala esploratzea, gatazkaren kudeaketa positiborako baliabide pertsonalak bizitzea, eta komunikazio-tresna asertiboak eskuratzea egoera emozional gogorrak maneiatzeko.

Edukiak

- Autoezagutza emozionala: Emozioaren elementu kognitiboa, fisiologikoa eta jokabidezkoa.
- Emozioak adieraztea eta erregulatzea.
- Gatazketan elkar ulertuz: gure beharrekiko lotura.
- Gizarte-trebetasunak: elkar ulertzeko gakoak.
- Pertsonen arteko komunikaziorako gaitasunak. Enpatia, besteen sentimenduak ulertzea, hizkuntza asertiboa, lehen pertsonan hitz egitea.

Iraupena: 15 ordu. 12 ordu aurrez-aurre/online eta lan pertsonalerako 3 ordu.

Nork emana: María Méndez Barrio

Coach-a, bitartekaria eta prestatzailea gatazkak positiboki kudeatzeko gaietan.



Datak

- Urtarrilak 21 eta 28, eta otsailak 4 eta 11 (ostegunak): 17:00–20:00.
- Otsailak 18 eta 25, eta martxoak 2 eta 9 (ostegunak): 18:00–20:00.

Tokia

Online. Parte-hartzea baieztatzen denean emanen da esteka

Behin-behineko izen-ematea

Urtarrilaren 18ra arte. Aurreko hiruhilekoan izena eman zutenek lehentasuna izanen dute

TALDEEN GIDARITZA ETA LIDERGOA PANDEMIAREN TESTUINGURUAN

Konplexutasunak eta ziurgabetasunak, besteak beste, zedarritzen dute zenbait hamarkadatik hona bizi dugun gizarte-testuingurua, 'gizarte likidoa' izeneko.

Estresa da haren ondorioetako bat, profesionalen artean gaixotasunen eragile nagusi gisara.

Pandemiak, jendea estres sozialeko kinkan jarrita, arriskua areagotu du pertsonen osasun fisikorako eta mentalerako.

Halako testuinguru konplexu eta ziurgabe honetan giza taldeak zuzentzeko inoiz baino beharrezkoagoa da lan egiteko moduak egokitzea eta aldi berean aukerako harremanak sortzea, testuinguru eta antolaketa osasungarriak zein jasangarriak eraikitzeko.

Helburuak

- Talde-zuzendaritzan gaitzea etengabeko aldaketa-testuinguruetan.
- Egoeraren arabera lidergoa eraikitzen erraztea.
- Estrategiak ezagutu eta praktikan jartzea pertsonen eta erakundeen osasuna gidatzeko.

Edukiak

- Giza erakundeen gaineko ikuspegi sistemikoa.
- Zuzendu, kudeatu eta buru izatea aldaketa eta krisi garaian.
- Arrisku psikosozialeko faktoreak pandemia-garaian.
- Lan-, familia- eta gizarte-estresa bateragarri egitea?
- Gizartearen parte-hartzea osasun arloan: antolaketa mota osasungarriak eta eraginkorrak.
- Gizarte-berrikuntza: lantaldeak eta egoeraren arabera lidergoa.

Iraupena: 20 ordu

Nork emana: Blas Campos Hernández

BIDARI Prestakuntza eta Aholkularitza Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna. Krisialdian esku hartzeen espezialista. Diplomaduna profesionalen Orientazioan eta Gainbegiratzean. Familia-terapeuta sistemikoa.



Datak

Urtarrilak 20

Ordutegia

16:30–19:30

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka

Behin-behineko izen-ematea

Urtarrilaren 18ra arte

HERRITARTASUN GLOBALA ETA PARTE-HARTZEA: GGKEEN SARE-LANA

Lehen saio honetan hainbat kontzeptu argituko dira, hala nola Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailea eta nazioarteko lankidetzak.

GGKEen lanari buruz hitz egingen da, ez horrenbeste nazioartean, baizik eta tokiko esparruan hezkuntzaren bidez, eta nola proposamen horiek herritarren parte-hartzea eragiten duten. Zenbait kasu erakutsiko dira.

Esaterako, Eskola Solidarioen proiektua eta hezkuntza ez-formaleko beste batzuk.

Edukiak

- Nazioarteko lankidetzak.
- Garapenerako Hezkuntzaren etapak, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailean iritsi arte (HGHE).
- GJHak.
- GGKE-en Koordinakundea eta haren Sareak.
- HGHE, gizarte-eraldaketarako oinarri.
- HGHE, herritarren parte-hartzearen iturri.
- Kasu errealak, proiektuak.

Iraupena: 3 ordu

Nork emana: Marian Pascual Recalde

Nafarroako GGKEen Koordinakundeko Hezkuntza teknikaria. NUPeko Garapenerako Lankidetzak eta Hezkuntzako Masterra eta NUPeko udako ikastaroak. Beste erkidego batzuetako erakundeentzako aholkularia: Asturiaseko Lankidetzak Agentzia, Valladolideko Unibertsitatea, Valladolideko diputazioa, Gaztela Mantxakoa, Zaragozako.



Datak

Urtarrilaren 25etik
otsailaren 23ra

Ordutegia

astelehen eta astearteetan,
17:00etatik 20:00etara

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka.

Behin-behineko izen-ematea

Urtarrilaren 18ra arte.
Lehentasuna izanen dute lehen
modulua egin zutenek.

KOMUNITATE-BITARTEKARITZA

Ba al duzu interesik pertsonen artean hartu-emateko eta topatzeko guneak errazteko, baina ez duzu ezagutza eta praktika nahikorik? Beldurra diozu zuk antolatutako jarduera batean gatazka-egoera bat sortu eta nola erantzun ez jakiteari?

Pertsonen arteko elkarrizketa- eta topaketa-guneek ongizatea bultzatzen dute eta sortzen duten gizarte-ehunak gatazkak saihesten ditu, eta elkarbizitza hobetu. Baina, halako guneak zuzen sortzeko eta “magia gerta dadin” gatazketan bitartekaritza- eta kudeaketa-gaitasunak garatu eta entrenatu behar dira.

Gatazkak kudeatzeko bitartekaritzaren eraginkortasunak bide ematen digu hura komunitate-prozesuetan arrakastaz aplikatzeko eta eraldaketa kolektiborako guneak sortzeko.

Irakasbidea da, baita ere, errespetutik eta pluralismotik abiatu elkarrekin bizitzen ikasteko, harreman endogamikoak, hau da, antzekoen arteko harremanetarako joera gaitzuta; hortaz, nola sortuko ditugu elkartuko ez liratekeen pertsonen arteko gune ez-posibleak?

Ikastaro honek beharrezko ezagutzak, metodologia eta tresna praktikoak jarriko dizkizu eskura zure testuinguru hurbilean – entitate, lantalde, erakunde eta komunitateetan – metodologia hau praktikan jartzeko.

Edukiak

- Gatazken kudeaketa: zergatik haserretzen gara besteekin?
- Berdinak gara / ezberdinak gara: identitate zibikoa, gure arteko isiltasuna gaitzutea.
- Nola sortu guneak hartu-emanetarako eta “harreman ez-posibleak” sustatzea.
- Entrenamendu tekniko Bitartekaritzan: Gatazkak. kudeatzeko metodoak eta teknikak.
- Prozesu zehatzetan jardutea; eginez ikasten da: Ikasitako metodologia praktikan jartzea eta parte-hartzaileen testuinguru hurbilean hura gauzatzea.

Iraupena: 90 ordu guztira. 30 ordu hiruhileko bakoitzeko. Edukietan jarraipena izanen dute; beraz, ikastaro osoa egitea aholkatzen dugu.

Nork emana: Maite Eraso Ascunce

Gizarte langilea + Bitartekaria Meeting Point-en. Aditua bikoteen, familien eta erakundeen gatazketan.



Datak

2021eko urtarrilaren 29a

Ordutegia

17:00–19:00

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka

Behin-behineko izen-ematea

Urtarrilaren 22ra arte

INDARREAN DEN PARTAIDETZAKO ERREGELAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO EZAGUTZAK

Iruñeko Udalaren Partaidetzako Erregelamendu berria indarrean sartu eta urtebetetera, COVID-19ak eragindako osasun-krisiak markatutako aldia, arau honen oinarritzko gaiak aztertzen dira, herritarrek ezagut ditzaten.

Edukiak

- Xedapen orokorrak
- Herritarren partaidetzarako organoak
- Partaidetza-prozesuak
- Herritarren eskubideak
- Lankidetza publiko-soziala
- Beste xedapen batzuk

Iraupena: 2 ordu

Nork emana: Ainhoa Guelbenzu Echegaray

Iruñeko Udaleko Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko partaidetzako teknikaria.

Ana Belén Albero Díaz

Abokatua. Masterra Irabazi-asmorik gabeko entitateen kudeaketan. Gaztediaren Etxeko eta Zentroko Aholkulari Juridikoa.



Datak

Otsailak 23 eta 25,
eta martxoak 1, 3 eta 5

Ordutegia

16:00–19:00

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka

Behin-behineko izen-ematea

Otsailaren 16ra arte

NOLA EGIN AURRE GORROTOAREN DISKURTSOARI ETA DESINFORMAZIOARI? ZIBERAKTIBISMOAREN ESTRATEGIAK ETA BERRIKUNTZA NARRATIBOA

Gezurrak, gorroto-diskurtsoak eta munduaren ikuspegi diskriminatzaileak nagusitzen ari dira Interneten. Aurreiritziak, zurrumurruak, gezurrak eta difamazioak (xenofoboak, arrazistak, islamofoboak, misoginoak, aporofoboak...) narratiba zapaltzaileetan artikulatzen dira, eta gaur egun errealitatearen interpretazio alboratu, oldarkor eta baztertzalea transmititzen ari dira. Prozesu horretan, sare sozialek zeregin bikoitza dute: gorrotoa zabaltzeko bide nagusia dira, eta, aldi berean, ezinbesteko aukera dira intolerantziaren eragina mugatzeko.

Nola egin diezaiokegu aurre erronka horri kontakizunak eraldatuz? Nola aprobetxatu ingurune digitalaren ahalmenak diskurtso baztertzalea online eztabaidaguneez jabetu ez dadin? Nola eraiki eta komunika ditzakegu guztion istorioak, pertsonak mobilizatu daitezen?

Ikastaroan gai horiek landuko ditugu, eduki teoriko/ kontzeptuala eta aniztasunari buruzko kontakizun berri bat kolektiboki eraikitza bideratutako garapen praktikoa uztartuko ditugu, kontakizun horrek inpaktu handiko ekintzak susta ditzan, baliabide digitalen bidez gizarteari jakinarazteko. Ondoren, online laguntza bat ere proposatzen dugu (ikasgela birtuala), ikasleei ziberaktibismo esku-hartzeetan laguntzeko.

Metodologiak talentu kolektiboak jartzen ditu jokoan aurrez aztertutako gizarte-erronka bati erantzuteko –gorroto-diskurtsoak Interneten duen gorakadari, hain zuzen–, erantzun sortzaile, berritzaile eta eraginkorrak diseinatuta.

Iraupena: 15 ordu

Nork emana: Natalia Monje

Historian lizentziaduna, Komunikabideetan masterra. Prentsa idatzia, telebista, Ecos do Sur-eko komunikazio-arduraduna. Gizarte-komunikazioan eta migrazioei buruzko komunikazioan 15 urteko ibilbidea duen kazetaria, gorroto-diskurtsoaren aurkako ziberaktibismoan eta fact checking-ean espezializatua.



Datak

Martxoak 15 eta 16

Ordutegia

16:00–19:00

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka

Behin-behineko izen-ematea

Martxoaren 8ra arte

2030EKO AGENDA ETA GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK

COVID-19aren krisia izugarrizko ondorio kaltegarriak eragiten ari da gizadian, eta osasun publikoaren azken urteotako krisirik handienetakotzat jotzen da. Administrazio publikoak aurrekaririk ez duen krisi baten kudeaketan murgilduta daude, eta elementuak, praktikak eta ibilbide-orriak behar dira egoera hori arintzeko, lehen aldiz globala baita eta planeta osoari eragiten baitio.

2030eko Agenda, Garapen Jasangarriko 17 Helburuekin, proposamen global onena eta osatuena da estatuei, eskualdeetako gobernuari, tokikoei, enpresei eta mota guztietako erakunde eta eragileei krisialdi honi bere osotasunean aurre egiten laguntzeko, eta etorkizuneko gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-berrantolaketa bultzatzeko, munduan izandako eraginaren ondoren.

Aurrekoarekin lotuta, prestakuntza-ikastaro bat proposatzen da, 2030eko Agenda zer den eta haren ekintza-esparrua ezagutzeko (Garapen Jasangarriko Helburuak – GJH) eta tokiko esparrutik nola heldu jakiteko, arreta berezia jarritz pandemia osteko agertokian ekintza-plan unibertsal honek dituen aukerei.

Edukiak

1. Saioa. Kontzeptu-oinarriak: zer dira 2030eko Agenda eta Garapen Jasangarriko Helburuak

- Historia pixka bat: aurrekariak eta esparru unibertsala.
- Tokiko gobernuaren eginkizuna garapen jasangarrian.
- GJHak aztertzea, beren helburu eta adierazleekin: nazioartekoak, estatukoak eta tokikoak.
- 2030eko Agenda herritarren partaidetzarako hizkuntza berri gisa.

2. Saioa. 2030eko Agendari tokian tokitik heltzea

- 2030eko Agendaren aukerak tokiko esparruan.
- Udal-testuinguruaren garapen jasangarriko adierazleak.
- 2030eko Agendari heltzeko hainbat abiapuntu eta ikuspegi.
- Aliantzen eta sareak sortzearen garrantzia GJHak betetzeko.

Iraupena: 6 ordu

Nork emana: Elisa Palacios Santos

Koine Aequalitas Fundazioko Jasangarritasuneko eta Berdintasuneko arduraduna.



Datak

- Gaztelaniaz: otsailak 1, 3, 5 eta 8
- Euskaraz: otsailak 15, 17, 19 eta 22

Ordutegia

17:00–19:30

Tokia

Online. Parte-hartzea baieztatzen denean emanen da esteka

Behin-behineko

izen-ematea

- Gaztelaniaz: urtarilaren 25era arte
- Euskaraz: otsailaren 8ra arte

MIGRAZIOA ETA GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA (GAZTELANIAZ ETA EUSKARAZ)

Herritarrek gai publikoetan parte hartzea oraindik ere jorratzeko zaila den erronka da, oro har. Are gehiago migratzaileen kasuan, zailtasun handiak baitituzte gizarte- eta lan-eskubideak lortzeko bide gogorrean. Hala ere, harrera-gizartean publikoki parte hartzea ezinbestekoa da eskubide horiek aitortzeko eta gizarteratzeko.

Prestakuntza honetan, gizarte-partaidetzaren erronkaren aurrean migratzaileak zein abiapuntutan dauden aztertzen saiatuko gara, bai eta haien parte-hartze aktiboa sustatzeko zein estrategia erabil daitezkeen ere.

Edukiak

- Migratzaileen egoera: Kultura-aniztasuna eta kulturen arteko bizikidetza.
- Parte-hartze soziala: Definizioa eta motak. Erabilgarritasunak eta oztopoak. Beharra eta eskubidea. Jarrerak eta motibazioa.
- Migrazioa: Gizartean parte hartzeko beharrak, abantailak eta oztopoak.
- Migratzaileek gizartean parte hartzeko estrategiak, mekanismoak eta tresnak.

Iraupena: 10 ordu

Nork emana: Santi Gil-Ibarrola Grocin

Gaur egun Burlatako Udaleko Kultura Aniztasuneko eta Migrazioeko teknikaria da. Gizarte-lanean diplomaduna (NUP). Lan- eta gizarte-aditua (UHUN). Orientazioko eta Gizarteratzeko eta Laneratzeoko teknikaria (Prestakuntza Funtsa).



Egunak eta orduak

- Ostirala: 17:00–20:00
Urtarrilak 22
Otsailak 12
- Larunbata: 10:00–13:00
Urtarrilak 23–30
eta otsailak 6–13
- Larunbata: 10:00 – 12:00
Otsailak 20

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka

Behin-behineko izen-ematea

urtarrilaren 19ra arte. Aurreko
hiruhilekoan izena eman
zutenek lehentasuna izanen
dute

Nori zuzendua?

Kulturarteko harremanak
hobetzeko interesa duten
herritarrei, eta kultura
ezberdinetako lagunekin
lanean ari diren profesionalei
zein boluntarioei

KULTUREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA AURREZ AURRE

Komunikatzeak askoz ere gehiago eskatzen du hizkuntza bat partekatu eta esaldi gramatikalki zuzenak egitea baino, informazioa helaraziko badugu. Aurrez aurreko solasaldietan, adierazkortasun ezberdineko mezuak gertatzen dira, aldi berean, eta horrek erraztu edo zaildu egiten ditu komunikazio-prozesuak, arintzen ditu edo geldiarazten ditu.

Komunikazio-kultura ezberdinetako kideen arteko topaketetan gaizki-ulertuak eta gorabeherak eragiten dituzten kultur arloko elementuen eragina aztertuko dugu, gero eta aniztasun handiagokoa den gure hirian kulturen arteko komunikazioa ulertu eta praktikatu ahal izateko.

Helburuak

- Kultura ezberdinetako pertsonen arteko komunikazioa ulertzea.
- Hirian kulturarteko komunikazioa hobetzeko praktikak eraikitzea.
- Lankidetzako harremanak erraztea kulturarteko testuinguruetan.

Edukiak

- Giza komunikazioa aurrez aurreko prozesu gisa. Hitzetatik haratago.
- Zer da kulturarteko komunikazioa?
- Komunikazio-ereduak eta kultur zein gizarte balioak.
- Gertakari kritikoak.
- Komunikazio-dinamika: aditzeko artea eta erantzuteko iaioitasuna.

Iraupena: 20 ordu

Nork emana: Blas Campos Hernández

BIDARI Prestakuntza eta Aholkularitza, Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna. *Krisialdian esku hartzeen espezialista*. Diplomaduna profesionalen Orientazioan eta Gainbegiratzean Familia-terapeuta sistemikoa.



Datak

Otsailak 9, 16 eta 23
eta martxoak 2

Ordutegia

16:00–18:30

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka

Behin-behineko izen-ematea

Otsailaren 2ra arte

ADIMEN-URRITASUNA DUTEN PERTSONEN PARTE-HARTZEA. NI ERE

Ikastaro honetan, partaidetza kontzeptuari, parte hartzeko oztopoei eta hura errazten duten tresnei buruzko ibilbide bat eginen dugu. Adimen-urritasunaren definizioa eta azken urteetan sortutako kontzeptuaren gaineko begirada-aldaketa hartuko ditugu abiapuntu, hortik abiatuta zentzu handiagoa hartzen baitu parte-hartzearen beharra zalantzan jartzeak.

Ikastaroan adibideak, artikulak eta dokumentazioa aurkituko ditugu, edukia hobeto ulertzeko eta sakontzeko.

Edukiak

- Sarrera
- Zer da partaidetza?
- Nola parte hartu?
- Adimen-urritasuna duten pertsonen parte-hartzea sustatzeko aholkuak

Iraupena: 10 ordu


Nork emana: Plena inclusión

Silvia Muñoz

Psikologian lizentziaduna eta hezkuntzaren kalitatean eta berrikuntzan aditua.

Olga Berrios

Komunikazioan lizentziaduna eta irisgarritasun kognitiboan aditua, eta hainbat gonbidatu.



Datak

2021eko otsailak 12, 19
eta 26

Ordutegia

17:00–20:00

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka

Behin-behineko izen-ematea

Otsailaren 4ra arte

ELKARTEEN FINANTZAKETA ETA KONTABILITATEA

Funtsak bilatzeak eta horiek kontabilitatean islatzeak askotan kezkatzen ditu elkarteak. Ikastaro honen bidez oinarritzko tresnak eman nahi dira, finantzaketa bilatzea eta hura kontabilitatera itzultzea arazo izan ez daitezen entitateentzat.

Edukiak

- Araudia
- Finantzabideak.
- Zer da kontabilitatea, kontzeptuak, zertarako balio du...
- Kontabilitatea eramatera behartuta nago? Nola egiten da kontabilitatea?
- Kontabilitate-motak.
- Kontabilitate-prozesua: Hasiera. Garapena. Itxiera, urteko kontuak.
- Egunerokoa, kontabilitate-kontuak. Liburu Nagusia. Urteko kontuak, balantzea, emaitza-kontua eta memoria.
- Adibide praktikoak: gastuak eta diru-sarrerak.
- Programak eta tresnak.


Iraupena: 9 ordu

Nork emana: Ana Belén Albero Díaz

Abokatua. Masterra Irabazi-asmorik gabeko entitateen kudeaketan. Gaztediaren Etxeko eta Zentroko Aholkulari Juridikoa.

Abel Álvarez Páez

Ekonomiako lizentziaduna. Kontu-hartzailea.



Datak

Otsailak 18 eta 25,
eta martxoak 4 eta 11

Ordutegia

- 16:00–18:00 (otsailak 18 eta 25, eta martxoak 4 eta 11).
- 16:30–19:30 (martxoak 18 eta 25).

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka

Behin-behineko izen-ematea

Otsailaren 10era arte

ZERK EGITEN ZAITU PAREGABE: GIZARTE- BERRIKUNTZA ETA FUNTSAK LORTZEKO ESTRATEGIAK, FINANTZAKETA PUBLIKOAREN ALTERNATIBA GISA

Prestakuntza horren helburua da ‘gizarte-berrikuntza’ eta “balio partekatua” kontzeptuak elkarrean jardueretara hurbiltzea, baita horiek aztertzeko eta erakundearen estrategian txertatzeko tresnak ezagutzea ere. Halaber, tresnak kasuaren metodoarekin praktikan jartzea eta esperientzia partekatzea.

Horrez gain, prestakuntzaren beste helburu bat da bertaratutako erakunde/elkarteek ideia argi bat izatea funts pribatuak erakartzeko estrategiei eta ekintzei buruz, horiek martxan jarri ahal izateko finantzaketa publikoaren ordezkio edo osagarri gisa entitateetan.

Edukiak

- Zure elkartearen balio-proposamen bat bultzatzearen garrantzia.
- Gizarte-berrikuntza eta balio partekatua
 - Gizarte-berrikuntza nola ulertzen dugun
 - Berritzeko eta jarduera sortzeko tresnak
 - Balio partekatu bat bilatzea finantzaketa-iturri gisa
- Ideiak sortzeko lantegia.
- Balio-proposamena aztertzeko eta bultzatzea: Business Model Canvas.
- Diru-sarreraren iturriak digitalizatzea eta dibertsifikatzea, finantzaketa-iturri pribatuak, fundraising digitala, zure webgunearen bidez funtsak lortzeko gakoak, bazkideak eta emailak erakartzea eta fidelizatzea, crowdfunding soziala eta peer to peer kanpainak.
- Beste finantzaketa-iturri batzuk: ekitaldiak, lasterketak, afariak, kontzertuak, produktu solidarioak...


Iraupena: 14 ordu

Nork emana: Javier Aguirre Pascual

Aholkulari gisa lan egiten du Coval Consultores aholkularitzan. Biologian lizentziaduna, ETEen zuzendaritzan goi-mailako ikastaroa eta hainbat ikastaro erakundearen kudeaketan, estrategian, kalitatean, ingurumen-kudeaketan, GEK-an eta gizarte-berrikuntzan.

Amparo Bértolo

Fundraising Navarrako zuzendaria. Kazetaritzan lizentziaduna eta graduondokoa marketinean.



Datak

Martxoaren 1etik 28ra.
Online saioak, ostegunetan

Ordutegia

16:00–20:00

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean emanen
da esteka

Behin-behineko

izen-ematea

otsailaren 22ra arte

HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GIZARTE- ERALDAKETA BOLUNTARIOTZAREN BIDEZ

Ikastaroaren helburu orokorra da parte-hartzaileei ezagutza eta tresna egokiak ematea, beren erakundeak gizartea eraldatzeko plataforma bihurtzeko, boluntarioen parte-hartzearen bidez. Helburu goren hori betetzeko, honako helburu espezifiko hauek bete beharko dira:

- Boluntariotzaren dimentsio sozial eraldatzaileaz jabetzea.
- Dauden boluntariotza-eremu eta -modu berriak ezagutzea.
- Boluntariotza behar bezala kudeatzeko beharrezko. jarraibideak ezagutzea, bai eta horien lege-esparrua ere.

Edukiak

1. Boluntariotza eraldatzailea, berritzailea, irekia eta parte-hartzailea eta belaunaldien artekoa.
2. Gure entitatean parte hartzeko espazioak definituz.
3. Boluntariotzaren kudeaketa-zikloa I: boluntarioak sartuz. Boluntarioak erakartzea eta entitatean sartzea.
4. Boluntariotzaren kudeaketa-zikloa II. Boluntarioei laguntza eta prestakuntza emanez. Boluntarioen koordinazioa.

Metodología

Prestakuntzek beti dute ezagutza teorikoetarako zati bat, ezagutza kolektiboa sortzeko foro aktibo bat eta jarduera ebaluagarri batzuk. Parte hartzaileen lan autonomoaren zati bat dago, ezagutza kolektiboa sortzeko beste bat eta gure prestatzaileek zuzendutako ikaskuntzakoa.

Iraupena: 24 ordu (20 saio online + lan pertsonalerako 4 ordu)

Nork emana: Fundación Esplai

Kolektibo zaurgarrien gizarteratzearen alde lan egiten du, alfabetatze digitaletik gaitasun digitalen garapenera.



Datak

Otsailak 6, 13, 20 eta 27

Ordutegia

10:00–13:00

Tokia

Online. Parte-hartzea
baieztatzen denean
emanen da esteka

Behin-behineko izen-ematea

Urtarrilaren 29ra arte

SARE SOZIALEN LANTEGIA ELKARTEENTZAT

Hainbat sare sozialen sorrera eta kudeaketa modu praktikoan bideratzeko lantegia. Edukia, tonua eta mezua landuko dira, sentsibilizaziora eta balioen komunikaziora bideratuta.

Helburuak

- Komunikazio-ekintzak eta online kanpainak egiteko oinarrizko ezagutzak ematea.
- Estetika- eta estrategia-irizpideak sortzea komunikatzeko orduan.

Edukiak

1. Social media plana: sareetarako estrategia
2. 360º-ko kanpainak diseinatzea
3. Edukiak sortzea
4. Engagement: nola lortu jarraitzaile leialak

Iraupena: 12 ordu: 3 orduko lau saio, larunbatetan

Nork emana: Ane Aldaya

Komunikazio teknikaria Zentroko Partaidetzarako Informazio eta Baliabide Zerbitzuan. Publizitate eta Harreman Publikoetan graduduna, EHUn.



				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10

1. Gizarte-trebetasunak

- 1.1. Emozioen iparrorratza
- 1.2. Harremanak eraikitzea adimen emozionaletik 'Gatazkari eta komunikazioari buruzko lana'
- 1.3. Taldeen gidaritza eta lidergoa pandemiaren testuinguruan

11	12	13	14	15	16	17
----	----	----	----	----	----	----

2. Partaidetza-tresnak

- 2.1. Herritartasun Globala eta Parte-hartzea: GGKEen sare-lana
- 2.2. Komunitate-bitartekaritza
- 2.3. Indarrean den Partaidetzako Erregelamenduari buruzko oinarritzko ezagutzak
- 2.4. Nola egin aurre gorrotoaren diskurtsoari eta desinformazioari? Ziberaktibismoaren estrategiak eta berrikuntza narratiboa
- 2.5. 2030eko agenda eta garapen jasangarriko helburuak

18	19	20	21	22	23	24
		I 2.1	I 1.3	I 1.1 I 3.3	I 1.1 I 3.3	

25	26	27	28	29	30	31
I 2.2	I 2.2		I 1.3	I 1.1 I 2.3	I 1.1 I 3.3	

3. Gizarteratzea

- 3.1. Migrazioa eta gizartearen parte-hartzea (gaztelaniaz)
- 3.2. Migrazioa eta gizartearen parte-hartzea (euskaraz)
- 3.3. Kulturen arteko komunikazioa aurrez aurre
- 3.4. Adimen-urritasuna duten pertsonen parte-hartzea.Ni ere

4. Elkarteen kudeaketa

- 4.1. Elkarteen finantzaketa eta kontabilitatea
- 4.2. Zerk egiten zaitu paregabe: Gizarte-berrikuntza eta funtsak lortzeko estrategiak, finantzaketa publikoaren alternatiba gisa
- 4.3. Herritarren partaidetza eta gizarte-eraldaketa boluntariotzaren bidez

5. Trebetasun teknologikoak

- 5.1. Sare sozialen lantegia elkarreentzat



1. Gizarte-trebetasunak

- 1.1. Emozioen iparrorratza
- 1.2. Harremanak eraikitzea adimen emozionaletik 'Gatazkari eta komunikazioari buruzko lana'
- 1.3. Taldeen gidaritza eta lidergoa pandemiaren testuinguruan

2. Partaidetza-tresnak

- 2.1. Herritartasun Globala eta Parte-hartzea: GGKEen sare-lana
- 2.2. Komunitate-bitartekaritza
- 2.3. Indarrean den Partaidetzako Erregelamenduari buruzko oinarritzko ezagutzak
- 2.4. Nola egin aurre gorrotoaren diskurtsoari eta desinformazioari? Ziberaktibismoaren estrategiak eta berrikuntza narratiboa
- 2.5. 2030eko agenda eta garapen jasangarriko helburuak

3. Gizarteratzea

- 3.1. Migrazioa eta gizartearen parte-hartzea (gaztelaniaz)
- 3.2. Migrazioa eta gizartearen parte-hartzea (euskaraz)
- 3.3. Kulturen arteko komunikazioa aurrez aurre
- 3.4. Adimen-urritasuna duten pertsonen parte-hartzea.Ni ere

4. Elkarleen kudeaketa

- 4.1. Elkarleen finantzaketa eta kontabilitatea
- 4.2. Zerk egiten zaitu paregabe: Gizarte-berrikuntza eta funtsak lortzeko estrategiak, finantzaketa publikoaren alternatiba gisa
- 4.3. Herritarren partaidetza eta gizarte-eraldaketa boluntariotzaren bidez

5. Trebetasun teknologikoak

- 5.1. Sare sozialen lantegia elkarreentzat

1	2	3	4	5	6	7
I2.2	I2.2	I1.2	I1.3	I2.4	I3.3	
I3.1		I2.4	I4.2	I3.1	I5.1	
		I3.1	I4.3			
8	9	10	11	12	13	14
I2.2	I2.2	I1.2	I1.3	I3.3	I3.3	
I3.1	I3.4		I4.2	I4.1	I5.1	
			I4.3			
15	16	17	18	19	20	21
I2.2	I2.2	I1.2	I1.3	I3.2	I3.3	
I3.2	I3.4	I3.2	I4.2	I4.1	I5.1	
			I4.3			
22	23	24	25	26	27	28
I2.2	I2.2		I1.3	I4.1	I5.1	
I3.2	I2.4		I2.4			
	I3.4		I4.2			
			I4.3			



1. Gizarte-trebetasunak

- 1.1. Emozioen iparrorratza
- 1.2. Harremanak eraikitzea adimen emozionaletik 'Gatazkari eta komunikazioari buruzko lana'
- 1.3. Taldeen gidaritza eta lidergoa pandemiaren testuinguruan

2. Partaidetza-tresnak

- 2.1. Herritartasun Globala eta Parte-hartzea: GGKEen sare-lana
- 2.2. Komunitate-bitartekaritza
- 2.3. Indarrean den Partaidetzako Erregelamenduari buruzko oinarritzko ezagutzak
- 2.4. Nola egin aurre gorrotoaren diskurtsoari eta desinformazioari? Ziberaktibismoaren estrategiak eta berrikuntza narratiboa
- 2.5. 2030eko agenda eta garapen jasangarriko helburuak

3. Gizarteratzea

- 3.1. Migrazioa eta gizartearen parte-hartzea (gaztelaniaz)
- 3.2. Migrazioa eta gizartearen parte-hartzea (euskaraz)
- 3.3. Kulturen arteko komunikazioa aurrez aurre
- 3.4. Adimen-urritasuna duten pertsonen parte-hartzea.Ni ere

4. Elkarleen kudeaketa

- 4.1. Elkarleen finantzaketa eta kontabilitatea
- 4.2. Zerk egiten zaitu paregabe: Gizarte-berrikuntza eta funtsak lortzeko estrategiak, finantzaketa publikoaren alternatiba gisa
- 4.3. Herritarren partaidetza eta gizarte-eraldaketa boluntariotzaren bidez

5. Trebetasun teknologikoak

- 5.1. Sare sozialen lantegia elkarreentzat

1	2	3	4	5	6	7
I2.4	I1.3 I3.4	I1.2 I2.4	I4.2 I4.3	I2.4		
8	9	10	11	12	13	14
	I1.3	I1.2	I1.2 I4.2 I4.3	I2.2	I2.2	
15	16	17	18	19	20	21
I2.5	I2.5	I1.2	I1.2 I4.3			
22	23	24	25	26	27	28
		I1.2	I4.3			
29	30	31				

Kokapena eta harremanetarako datuak:

Tfno 948 42 02 66
Email formacion.participacion@pamplona.es
Webgunea <http://participa.pamplona.es/>
<https://erabaki.pamplona.es>

📺 **Youtube:** [participa.pamplona](https://www.youtube.com/participa.pamplona)
📘 **Facebook:** [participa.pamplona](https://www.facebook.com/participa.pamplona)
🐦 **Twitter:** [@participa_pna](https://twitter.com/participa_pna)
📷 **Flickr:** [participa.pamplona](https://www.flickr.com/photos/participa.pamplona)